

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak merkatuaren azterketa egin ondoren, gure bezeroek honako ezaugarriak izango dituzte:

- **Emakumezkoak zein gizonezkoak.** Gure helburuetako bat genero guztien arteko aniztasuna lortzea da. Betidanik takoiak emakumeen modakoak baino ez dira izan. Enpresa honen bidez oztopo horiek hautsi nahi ditugu eta takoiak generorik ez izatea nahi dugu, edonork erabil dezakeen produktu eroso bat eskainiz, horrela merkatua dibertsifikatuz.
- Horrez gain, zutik eta takoiak jarrita denboraldi luze bati eusteko **gaitasun fisikorik ez duten pertsonen** ere lagundu nahi diegu. Hortaz, gure publikoa dotore jantzi nahi duten pertsonak izango dira, baina erosotasuna atzean utzi gabe. Produktu honekin lagunduko dugu dotore eta eroso joatea guztiontzat egingarri eta posible izan dadin, gure bezeroen ongizatea lehenesteko helburuarekin.
- Azkenik, gure publikoa **minimalista** izango da. Gure bezeroak aldi berean gauza gehiegi kargatu nahi ez duten horiek izango dira. Hau da, ahalik eta gauza gutxien eraman nahi dituzten horiek. Gure enpresan eskaintzen dugun produktu honi esker, bezeroek ez dute takoirik eta ordezeko zapatarik eraman beharko nekutzen direnean eroso ibiltzeko, dena zapata berean izango baitute, Zapakoian hain zuzen.

DATUEN BILKETA: Datuen bilketa egiteko eta bezeroen informazioa lortzeko inkesta batzuk prestatuko ditugu. Inkesta horiek Interneten eskuratu ahaliko dira. Iragarkia ikusten duten pertsonen artean interesatuta daudenak linkean sartuko dira.

Gure enpresa gero eta jende gehiagora heltzeko, salmentak handitzeko eta bezero gehiago lortzeko publizitatea egingo dugu. Iragarkiak Tiktok aplikazioan agertuko dira, gaur egun gazteen artean gehien erabiltzen den komunikabide eta aplikazioa delako. Tiktok gehiago erostera eta nobedade berrien berri erostera bultzatzen ditu pertsonak, beraz gure publizitatea egiteko komunikabide onena izango da.

